# GOIERRI KOPA TRAIL

1. Helburua

   Goierriko mendi lasterketen kopa egitea, lasterketa horietara eta ingurura, goierrira alegia, jendea, bai parte-hartzaile eta baita ikusle ere, erakartzeko.

2. Lasterketen datu teknikoak:

   Ibilbideak:

   Luzea: 20 - 26 km artean
   1200 - 1700 m d+

   Motza: 10 - 17 km
   600 - 900 m d+

3. Araudia:

   -Ligan parte hartzeko goierritarra den edozeinek egin dezake (Goierri behea eta Goierri garaiako herritarrak).
   -Trail distantzia edo sprint distantzia aukeratu daiteke, baina luzera bakoitzak bere sailkapena edukiko du, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere.
   -18 urte azpikoek sprint distantzian aritu ahalko dira soilik.
   -Ligako sailkapenerako lasterketa bakoitzaren denboratatik aterako dira.
   -Sailkapenak puntuazioaz aterako dira:
   ·1.go postua 50 puntu
   ·2. postua 48 puntu
   ·3. postua 46 puntu
   ·4. postua 44 puntu
   ·... 25. postua 2 puntu.
   ·Hortik gorakoak puntu bana.
   -Lasterketa bakoitzaren ondoren ligaren sailkapena argitaratuko da lasterketa ezberdinen bitartez.

-Ligaren sailkapenean liderra dena hurrengo lasterketaren izenematea doan izango du.

-Sailkapenaren lidergoa duen lasterkariak Liderraren kamisetarekin egin beharko du korri, lidertza hori galdu arte (salbuespenak banaka aztertuko dira).

-Ligaren sailkapen orokorra eta sariak Ligaren azkenengo lasterketan emango dira. 2016 urtean hau Axari trailek egingo du.

-Sailkapenaren kategoriak:

·Gizonezko orokorra trail ( +18 urte )
·Emakumezko orokorra trail ( +18 urte )

·Gizonezko orokorra sprint
·Emakumezko orokorra sprint

4. Lasterketa parte-hartzaileak:

   2016 urtean 4 lasterketek osatuko dute liga hau:

   -LEHARREI ( Gabiria ): apirilaren 9an
   -SEGURA-ZERAIN: maiatzaren 7an
   -UZ TRAIL: maiatzaren 28an
   -AXARI TRAIL: Irailaren 11an

5. Lasterketa guztietatik hiru puntuazio hoberenak izango dira kontuan Trail distantzian eta bi hoberenak Sprint distantzian.

6. Puntuazio berdinketa ematen den kasuetan hurrengo irizpideak desegingo dute hau:

   -Lasterketa gehien egin dituena.
   -Berdindutakoek koinziditzen duten karreratako denborak gehitu eta gutxien daukana.
   -Berdindutakoek koinziditzen duten karreratako postu hoberenak lortutakoak.

7. Sariak:

   Lau sari egongo dira materialean, nahiz eta garaikurrak sailkapen bakoitzeko hiru onenentzat egongo den.